

# EZKUTUKOA

(JOŠEMARI USANDIZAGA ZANAREN OROIKARRITZAT EGIÑA)

Mendi-erpiñ zorrotzak, egal ta barrenak  
Elurrez estalirik oraingoz daudenak  
Aitortutzen digute nola pozarrenak  
Igaro eta gero sortzen diran penak.

Lore-ille alayak pozgiroa dakar.  
¡Ai urteak baleuzka orrelako amar!  
Baña neguak dauzkan elur, otz et abar  
Ez dira igarotzen guk nai beziñ azkar.

Lege orretan dira poz eta oñaziak  
Lenak laburrak eta urrenak luziak  
Gizon erbalarentzat aldarte larriyak  
Bezterik ez dulako izate urriyak.

. . . . .

¿Zertarako da izatearen lilluripena  
Orei-lurriña balitz bezela banatzen dana  
Ichaso charrak lema gabeko ontziyengisan  
Jolasgarriztat eriyopean garabiltzana?

¿Zer da pozaren aldarte soilla gezurra ez ta  
Ustarkuaren (I) pichi ederrez jacten zaiguna,  
Begiko tayu ifnosuaren leyo limurra  
Aldiz alaya, aldiz goibela biurtzen duna?

Pozarrenaren lilluripenak diranagatik  
Bizi makurrak azaltzen ditzan gezur-aleak  
Az ezindako egarri gartsu itogarriya  
Eragiten dit egiyagana detan zaleak.

(I) Arco iris.